

Beste hiru greba egun egingo dituzte Asuncioneko langileek

Azaroaren 15ean, 22an eta 30ean grebara deitu dute, «lan baldintzak hobetuko dituen hitzarmenaren alde» egiteko; ez daude ados enpresak eginiko azken proposamenarekin, «soldata igoerarik ez duelako bermatzen» //3

Proiektu gogokoena bozkatzeko aukera dute tolosarrek

Ekonomikoki eta teknikoki bideragarri diren 17 proiektu zerrendatu dituzte, eta horien artean hiru aukeratu ahalko dituzte 16 urtetik gorako guztiek, azaroaren 12ra bitarte //7



Santa Klara komentuan eman zuten herriari agur esateko antolatutako jardueren berri. AITOR ARROYO ASKARAI

Komentua utziko dute klaratarrek

Hiru mende baino gehiagoko ibilbidearen ostean, ateak itxiko ditu Tolosako Santa Klara komentua; klaratarren bizimodua erakusten duen erakusketa eta liburuak prestatu dituzte, eta eraikina agurtzeko eukaristia egingo dute larunbatean; bertan bizi diren lau klaratarrek Gasteizera joango dira //5

 **sulumobel**

Adinekoei
segurtasuna eta **irisgarritasuna**
ematen dien soluzioa.

Altzari egokituen soluzio integralak

Egokitu zure sukaldea
zure bizitzara

1.990€* -tik hasita



*Basic-pack eguneraketa.



Informazio gehiago:
www.sulumobel.com
943 96 89 64

Alkateordetzatik alkate kargura egin du salto Amenabarrek Zizurkilen eta ardura berrian oraindik ere herriaren ikuspegi zabalagoa duela aitortu du; Aranak, berriz, bigarren agintaldia abiatu du Larraulen eta pozik agertu da herriari pultsua hartu diolako. Herritarrek adostu nahi ditu hemendik aurrerakoak Plan Orokor berrian.

Jon Miranda Zizurkil

Zortzi urte eman ditu zinegotzi gisa eta ekainetik Zizurkilgo alkatea da Maite Amenabar Alkorta (Azpeitia, 1977). Dio «oso ezberdin» ikusten direla gauzak toki batean edo bestean, eta aitortu du alkate kargutik herriaren ikuspegi zabalagoa duela. Olatuak ez dio gain hartu ordea eta lan berriari tamaina hartzen ari zaio.

Bulandegi bidearen egokitzapena abiatu zenuten aurreko agintaldian. Lan horiekin jarraituko duzue?

Bai, behar beharrezko proiektua da. Irisgarritasuna hobetu eta oinezkoentzako segurtasuna irabazi nahi dugu eremu horretan. Gaur egun, oztopo arkitektoniko ugari dago eta espaloiek ez dituzte beharrezko baldintzak betetzen. Aurreko agintaldian lehenengo fase bat egin genuen eta beste bizpahiru dauzkagu aurreikusita. Indar handienak, ekonomikoki behintzat, horretan jarriko ditugu. Hurrengo lanak Pedro Mari Otaño eskola aurreko eremuan hasi, Maria Brizardeko inguru horretatik pasaz, Alzatenea etxe pareraino egingo ditugu. 2024an hasteko asmoa dugu.

«Beharrezko proiektua da Bulandegikoa»

MAITE AMENABAR ALKORTA ZIZURKILGO ALKATEA

Legealdiko plangintza bat lantzen ari da taldekideekin batera, lau urteotan egingo diren proiektuen artean lehentasunak markatzeko

Egokitzapen lan horiek egite-akesan nahi du saihe bidea egiteko eskakizuna albo batera uzten duzuela?

Ez dugu eskaera hori alboratuko. Azaroan bilera bat dugu Gipuzkoako Foru Aldundiarekin gai hori buruz hitz egiteko eta Bulandegi bideko lanak finantzatzeko diru laguntza eskatzeko. Aldundiko arduradunek aitzakia bezala jarri dezakete saihe bidearen kostua, baina hori egin bitartean, ondorioak guk pairatzen ditugu eta herriarren ongizatea bermatzeko lanak egitera behartuta gaude. Obra horrek ia 2 milioi euroko kostua du eta hori ulertu eta kontuan hartu behar dute aldunditik.



J.M.

Kirol gune bat egiteko konpromisoa beteko duzue urteotan? Halterofilia taldeak egindako eskakizuna da eta udaletik aintzat hartu behar dugula iruditzen zai-

gu urteotan izan dituen lorpenak ikusita. Baina ez bakarrik halterofilia, beste kirol asko ere badago herrian eta denentzako toki bat egin nahi genuke, entrenatzeko tokiarekin, bulego batzuekin, dutxa batzuekin... Non? Gaur gaurkoz udalak ez du espaziorik. Behar horiei erantzun egokia emateko toki bila aritu gara eta erosteko lokalak begiratzen aritu gara; bizpahiru dauzkagu begiz jota. Aldundiarekin ere hitz egin nahi dugu gai honen inguruan.

Herrigunean Plazaetxe berri erosi ondoren, nola hornituko duzue espazioa?

Oso proiektu garrantzitsua da guretzat, 2025era bitartean osotasu-

nean landu nahi duguna. Herribizigunek antolatutako parte hartze prozesuaren ondorioak kontuan hartuko ditugu eraikina hornitzerako garaian eta esan dezakegu herriarren erabilera anitzetarako gune bat izango dela. Next Generation diru laguntzei esker Saseta Defentsa Sistemaren interpretazio zentro bat ere egokituko da Plazaetxeberri.

Aurretik esana duzue euskara eta parekidetasuna izango direla zuten zutabeak.

Herriarren ongizatea bermatzeko, parekidetasuna eta euskara presente eduki behar ditugula iruditzen zaigu. Gai horiek gure politiketan txertatu behar ditugu, erabaki bakoitzean, eta hori egin ez gero ikuspegi jantziagoa izango dugula iruditzen zait.

Zeresango zenieke herriarrei? Pazientzia edukitzeko gurekin. Gure helburuak eta lehentasunak argi edukita ez gaitzala administrazioaren jardun honek irentsi eta ez gaitzeen galdu zurruntasun horretan. Hemen lanerako gaude eta herriarren eskaerak bideratzeko. Gure helburua herria txukun mantentzea eta herriari bizia ematea da.

J.M. Larraul

Maite Arana Perezek (Santurtzi, 1970) aitortu du aurreko agintaldian Larraulgo alkatezara modu «berezi» batean iritsi arren, lau urteetan «lan polita» egin dutela udaletik herriaren alde. Lan horiekin jarraitzeko asmoak bultzatuta aurkeztu zen berriro PSE-EEko zerrendaburu gisa eta eskertuta agertu da herriarrek maiatzean eman zioten konfiantzagatik. Nahiko luke agintaldi amaierarako elkarriketak euskaraz eskaini; oraingoz, gaztelaniaz erantzun die galderei.

Datozen lau urteetarako zein erronka nagusi ditu Larraul?

Nola hazi nahi dugun erabaki behar dugu. Ez bagara hazten desgertu egingo gara, jende gaztea joan egingo da. Hiri Antolamendurako Plan Orokorren erredakzioa esleitu berri dugu eta datorren astean sinatuko dugu kontratua. Berez legez markatutako epeak errespetatuta ere, ahalik eta gehien azkartu nahi genuke prozesua. Tentu handiz egin beharrekola dela iruditzen zaigu, ondo begiratuta eta alderdi asko kontuan hartuta, eta beti, bidea

«Etorkizunera begira ereiten ari gara»

MAITE ARANA PEREZ LARRAULGO ALKATEA

Uste du herriari pultsua ongi hartua diotela udal taldean; proiektuak herriarrek adosten saiatuko da datozen lau urteetan ere

herriarrek batera diseinatu. Haiek eskatu digute gai honi heletzea eta herri proiektu bat marraztea.

Turismoa izan daiteke garapen bideetako bat herriarentzat?

Ba, baina lehen sektorea zaindu egin behar dugu, hori ezinbestekoa iruditzen zaigu, guretzako lehentasunezkoa. Egoera zaila bizi dute baserriarrek eta erakunde guztiok hori egon behar dugu haiei babesa eskaintzen. Horiekin batera, turismo jasagarria eta zerbitzuekin zerikusia duten jardueretan jarri behar dute indarra gurea bezalako herriek. Hemen industriarik ez dugu jarriko,



J.M.

ez zaigu toki egokia iruditzen horretarako.

Zer du eskaintzeko Larraulek? Gauza asko. Larraulek ondare kultural eta natural handia du.

Ostatua dugu, adibidez, gastronomia eskaintza ederra egiten duena. Elizan ere erretaula ikusgarria daukagu eta udaletxe azpialdean dagoen museoa ere erakargarria izan daiteke bisitariarentzat. Iruditzen zait hazkunde potentzialitate handia dutela Larraul bezalako herriek, Europak ezarritako irizpideen barruan egiten badute. Administrazioetik hori gidatzeko gai bagara, etorkizun oparoa izango dute gurea bezalako herriek. Etorkizunera begira ereiten ari gara.

Proiektuak finantzatzeko zein ahalmen du zurea bezalako udal batek?

Justukoa. Landa eremuko beste

herri askotan gertatzen den bezala gure auto-finantziario maila txikia da. Foru funtsetik jasotzen dugu ekarpen nagusia, baina ohiko funtzionamenduak dena irensten du eta diru laguntza eske ibili behar dugu batean eta bestean. Uste dut, landa guneak mantendu nahi baditugu, sentsibilitatea eduki behar dela haiekin, bestela ezinezkoa da. Gure ondare naturala zaintzeko ardura dugu, baina ardura hori ez da gurea bakarrik, gipuzkoar eta euskaldun guztionak baizik. Beraz lagundu behar gaituzte ondare hori mantentzen.

Zer suposatzen du herriarentzat eskola propioa edukitzeak?

Herrian sustraitzea lortzeko eta herriarren arteko harremanak sustatzeko garrantzitsua da eskola. Aurreko agintaldian lortu genuena ez da bakarrik udalaren lorpena izan, eskola bera, guraso elkarrekin eta herriarrek, oro har, bat eginda gaude. Ezinbestekoa izan da denen parte hartzea. Haur eskolarena edo eskola propioarena uste dut proiektu kolektiboak direla, eta hain zuzen, hori esker atera direla aurrera. Lan handia egin da eta ahalegina horretan jarraitu lortu dugu.



Asuncion Klinikako langileek elkarretaratzea egin zuten atzo, Usabalen. J. ARTUTXA

Hiru greba egun gehiago deitu dituzte Asuncioneko langileek

Lan baldintzak hobetuko dituen hitzarmena aldarrikatzeko, azaroaren 15ean, 22an eta 30an greba egingo dute

Josu Artutxa

Asuncion Klinika kudeatzen duen Inviza enpresako langileek, hiru eguneko lanuzteak eta 26 greba egun egin ondoren, beste hiru greba egun deitu dituzte. Hain justu, azaroaren 15ean, 22an eta 30ean egingo dute greba, «lan baldintzak hobetuko dituen hitzarmenaren alde».

Hainbat hilabete daramate borrokan, lan-hitzarmen duina izatearen alde eta negoziazioaren blokeoaren aurka. Era berean, ematen duten zerbitzuaren izaera publikoa aldarrikatzen dute, eta baliabideak nahiz baldintzak horren arabera izan behar liratekeela. «Zerbitzu publikoa eskaintzen dugu, beste eskualde batzuetan Osakidetza

egiten duena, baina batzuen eta besteen lan baldintzak oso urrun daude», adierazi dute langileek.

Atzo bertan, bigarren bilera egin zuten Precon (Lan Harremanen Kontseiluaren zerbitzu publikoan), baina Invizako langileek adierazi dute ez daudela oso ados mahai gainean jarri dutenarekin. «Gero eta pobreago nahi gaituzte, ez baitute soldatigoerarik bermatzen KPlaren erreferentziarekin. Bien bitartean, erregistroan dauden datuen arabera, Invizako kide den enpresa-taldeak azken urteotan irabaziak izan dituela salatu dute langileek. «Langileok lanean eta borrokan jarraituko dugu, egiten ari garen aldarrikapenak hitzarmen duin baten bihur daitezen»..

Hain zuzen, mobilizazio ziklo berriari ekin dioten honetan, atzo arratsaldean, ELA eta LAB sindikatuek deituta, kotxe karabana egin zuten.

Azken hiru hilabeteetan lanuzteak eta greba egunak egin dituzte Asuncion Klinikako langileek euren hitzarmenaren alde borrokan. «Erosahalmena berreskuratu eta lan berbera egiten duten Osakidetza langileen lan baldintzetara gerturatuko gaituen KPItik gorako soldata igoera eskatzen dugu», esan dute. Era berean, Osakidetza eta osasun arloko beste hainbat enpresa pribatutan baino lan ordu gehiago egiten dituztela Asuncionen diote, eta eskatu dute hitzarmenean 1.592 orduko muga ezartzea.

A25aren harira, ekitaldiak Ibarra

Erredakzioa Ibarra

Itaia Tolosaldeak Indarkeria Matxisten Egunaren harira, eta *Indarkeria Matxista Orori Aurre egin!* lelopean, ekitaldi sorta antolatu du larunbat honetarako Ibarra. Goizetik gauera bitarteko ekitaldiak antolatu dituzte, eta tartean, hitzaldiak, tailerrak, jan-edana, bertsolariak nahiz kontzertuak izango dira.

Bazkarirako txartelak 10 euroko kostua izango du, eta egunean bertan erosi ahalko da. Izena emateko 688 82 79 92 telefono zenbakira idatzi beharko da, eta berezitasunik izanez gero ere, bertan adierazi ahalko da.

Egitarauari dagokionez, 10:30ean hasiko da eguna, indarkeria matxistari aurre egiteko antolakuntzaren beharraz hitzaldiarekin plazan. 12:00etan hamaiketako izango da, eta ondoren, mural margoketa eta autodefentsa tailerrak egingo dituzte gaztetxean. Plazan bazkaldu ostean, bingo musikatua izango dute, eta 19:00etan Maite Garmendia eta Iraitz Sarasola bertsolariak ariko dira plazan. 21:00etan ekitaldi politikoa izango da gaztetxean. 21:30ean bokaten salmenta egingo dute, eta ondoren, kontzertuak izango dira Desgaraian, Manitu eta DJ Eoren eskutik.

Azkue egunerako balkoiak berdez apaintzeko deia

Erredakzioa Ibarra

Larunbatean, Azkue eguna ospatuko dute bederatzigarrenez. Suziria lehertuta emango diote hasiera festari 11:00etan. Ondoren, Gaztezulorekin batera haur jolas kooperatiboak izango dituzte. 11:30ean toka eta pintxo potea egingo dute, eta amaitzean bazkaria izango da. Bertarako txartelak Azkue okindegian izango dira salgai. Arratsaldean, bingoa eta Tor magoaren ikuskitzuna izango dute, eta DJarekin eta zezen suzkoarekin amaituko dute eguna. Balkoiak berdez apaintzeko deia egin dute.

Bigarren eskuko azoka egingo dute igande goizean

IRURA // Bigarren eskuko azoka egingo dute igandean San Migel plazan Irura Bizi elkarteak antolatuta. 11:00etatik 14:00ak bitartean izango da. Postua jarri nahi duenak irurabizi@gmail.com helbidera idatzi beharko du. Objektuak Irura Biziren postuan ere utzi daitezke.

Azoka berezia egingo dute igandean, frontoiaren inguruan

AMEZKETA // Igandean azoka berezia jarriko dute Amezketan. Larrunarri pilotalekuaren bueltan izango da azoka 10:30ean hasita, eta bertan, bertako animaliak, eta elikagaien eta artisauen postuez gozatu ahalko dute bertaratzeko direnek.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 130 € • Harpidedunentzat 65€

HANDIA (124mm X 63,5mm): 180 € • Harpidedunentzat 90€

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 80 € • Harpidedunentzat 40€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu

Azaroaren 25aren bueltako egitarauaren barruan, Garbiñe Biurrun epaileak 'Alokairuko sabelak' hitzaldia eskaini du Topic-en; haurdunaldi subrogatuaren funtzionamenduaz eta eraginaz aritu da

Batzuen ezina, besteen mina

Josu Artutxa Dorronsoro

Iun dago Tolosako Topic museoko aretoa. Fokuek agertokiko bi besaulkiak eta bandera morea argitzen dituzte. Bertan ez dira bi txotxongilo eseriko, ez noski, bi emakume aditu eta ahalguztidun baizik. Pilar Garaialde gidatuta, hastera doa Garbiñe Biurrun EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko areto sozialeko lehendakariak eta EHUko irakasleak haurdunaldi subrogatuari buruz egingo duen hitzaldia: *Alokairuko sabelak*.

Aretoko aulki koloretsuetan esertzen ari dira entzuleak; adin guztietakoak bertaratu dira: nerabeak, gazteak eta helduak. Gaurkoan, emakumeak gizonak baino gehiago dira. Era guztietako adituak daude, hala nola, medikuak, psikologoak eta politikariak, eta tartean, aita edo ama direnak eta ez direnak, hala izatea ala ez erabaki dutelako. Biurrun eta Garaialde agertokiko besaulkietan eseri dira, baina ez daude eroso, eta gaiak hala egotea eskatzen du. Kuxina bana ekarri dizkiete. «Orain, bai, hasi gaitezke».

Tolosako Asanblada Feministak antolatu du saioa, gizartearen hazkunde handia izaten ari den haurdunaldi subrogatuaren praktikak zertan datzan ezagutzeko, eta bi helburu nagusi ditu: aretotik jakintza handiagoarekin etxeratzea eta aurrerantzean gaiarekiko pentsamendu kritikoagoa izatea. Biurrunek argitu du hitzaldietan inoiz ez duela gaiarekiko jarrera edo iritzia alde aurretik adierazten, baina kasu honetan bai, egin nahi duela dio: «Guztiz aurka nago. Astakeria bat iruditzen zait, guztion duintasunaren aurka doan erabaki bat».

Galdera motz bezain mardulekin hasi da hitzaldia: Zer da gurasotasuna? Desioa? Eskubidea? Hori izango da hitzaldiko hari nagusia. Biurrunek argitu du praktika deskribatzeko terminologia askotarikoa dela, eta esan du horiek ideologiari guztiz lotuta daudela: «Aurka gaudenok *alokairu* eta *sabel* hitzak erabiltzen ditugu eta pertsona guztion askatasuna eta duintasuna de-



Garbiñe Biurrun eta Pilar Garaialde, asteartean Topic-en haurdunaldi subrogatari buruz egin zuten hitzaldian. J. A. D.

fendatzen dugu; alde daudenek, berriz, haurdunaldia eta subrogazioa terminoak erabiltzen dituzte eta guraso izateko eskubidea eta altruismoa arrazoitzen dituzte. Azken horiek laborategiko argudioak dira».

Praktika hau ezin da edozein herrialdetan aurrera eraman, gutxi batzuetan baizik. Gainera, herrialde bakoitzak legedi desberdin bat dauka, herrialdeen artean diru baldintzak oso desberdinak izan daitezke eta praktikaren arrakasta-maila desberdina izan daiteke. Euskal Herrian indarrean dagoen legediak, kasu honetan Europar Batasunekoak, debekatuta du haurduntza subrogatua. Hala ere, urtero EAEko 250 eta 300 haur artean jaiozen dira praktika honen bitartez, hemendik kanpo noski.

Besteak beste, praktika hau legezkoa da honako herrialdeetan: AEB, India, Grezia, Thailandia, Errusia, Kanada, Ukraina, Mexiko eta Portugal. Azken horretan, ordea, bikote homosexualen (lesbianen) ez zaie baimentzen praktika hau. Italiarrek, bestalde, urte honetatik aurrera guztiz debekatuta dute, baita beraien herrialdetik kanpo egitea ere; delitua da, bestela isun oso potoloak izango dituzte.



Publikoak askotariko galderak eta ekarpenak egin zituen amaieran. J. A. D.

AMATASUN ESKUBIDERIK EZ

Haurdunaldi subrogatua beste praktika batzuk baino urrunago doala nabarmendu du Biurrunek. «Pertsona askoren parte hartzea eskatzen du. Merkatuan dagoen negozio berri bat da, eta agentzia ugari aritzen dira horretan lanean». Gaur egun, kontratu bidez eramaten da aurrera praktika hau; guraso izateko intentzioa dutenak osatzen dute, eta haurdunak sinatu. «Ez dago inolako askatasunik. Azken finean, enkargu bat da. Emakume batek haur bat erditzen du, ondoren beste bati emateko». Kontratu horiek, ordea, 2006az geroztik baliogabeak dira Espai-

nian; Abortuaren Legearen arabera, praktika hauek indarkeria dira.

Biurrunek adierazi du kontratu horietan nabarmen geratzen dela errealitatea oso krudela dela. «Haurdunari inoiz ez zaio *ama* esaten; ez dauka eskubiderik. Klausulen arabera sabela besterik ez da». Ezin aipatu gabe utzi kontratuak osatzerako orduan haurdun geratuko denaren aurrekari penalak eskatzen dituztela; guraso izateko intentzioa dutenak, berriz, ez. «Haurdunak eskubide guztiak galtzen ditu, beste batentzat haurdun dagoelako, erabat kontrolpean. Gure legediak dio, or-

dea, erditzen duena dela ama, eta ezin dela bigarren amarik izan».

Praktika hau hedatzearen arrazoiak galdetuta, oztopo natural edo biologikoak aipatu ditu epaileak. Adopzioaren aukera ere mahai gainera ekarri dute hitzaldian. «Lehen aukera bat zen, baina itxi egin dira nazioarteko adopzioak, zorionez herrialde horietan umezurtzak hazi eta hezteko gai direlako». Gaur egun familia mota asko daudela eta

«Enkargu bat da. Emakume batek haur bat erditzen du, ondoren beste bati emateko»

«Haurdunari inoiz ez zaio *ama* esaten; ez dauka eskubiderik. Klausulen arabera, sabela besterik ez da»

GARBIÑE BIURRUN EPAILEA

betiko modeloak hankaz gora jartzen ari direla esan du epaileak. «Baina, hau ez da familia mota berri bat», argitu du.

ONDORIOAK ARAUTU BEHARRA

«Beraz, irtenbide hau zilegi da? Desira hau eskubide bat da?, galdetu du Garaialdek «Judizialki ez», erantzun dio Biurrunek. «Inon ez dago onartuta, eta ez da etikoa. Inork ez dauka eskubiderik modu horretara aita edo ama izatea erabakitzeke», gaineratu du, eta gogora ekarri du 2018ko Nazio Batuen Erakundearen Txosten Berezian aipatzen dena: «Haurren salerosketa dela zehazten du».

Epaileak esan du bere iritziz praktika ez lukeela arautuko, baina ondorioak bai. «Umea eta gurasotasuna ez nituzke ukitu, baina zigorrak jarri daitezke, ekonomikoak noski, eta oso gogorrak». Biurrunek desira bat du: «Konbentzitututa nago laborategietan aurrerapausoak emango dituztela. Bitartean, emakumea bihurtzen ari da laborategi bat».

Saioa amaitzean, publikoak txaloz eskertu du hizlariaren eta elkarriketatzailaren lana; gus-tura atera da aretotik.

Santa Klara komentuak ateak itxiko ditu 357 urte eta gero

Bere ibilbidea jasotzen duen erakusketa jarriko dute Aranburu Jauregian, eta larunbatean egingo dute komentuari agur ekitaldia

Aitor Arroyo Askarai

Hiru mende baino gehiagoko ibilbidearen ondotik, ateak itxi-ko ditu Tolosako Santa Klara komentuak. Itxieraren atarian, hainbat ekimen antolatu dituzte herria agurtzeko: Aranburu Jauregian erakusketa bat jarriko dute; hainbat liburu ondu dituzte komentuko bizitzaren nondik norakoak gordetzeko, eta agur ekitaldia egingo dute larunbat goizean.

Aranburu Jauregiko erakusketak ostiral honetatik aurrera egongo da ikusgai, eta klaratarren bizitzaren xehetasunak aurkeztuko ditu jendaurrean jarritz hamasei panel eta komentuko zenbait tresna. Helburu berari jarraiki, hainbat liburu ondu dituzte Joseba Urretabizkaia argazkilariak eta Fernando Hualde idazle eta historialariak. Larunbatean, al-

Hainbat liburu osatu dituzte klaratarren historia azaltzeko, eta larunbatean aurkeztuko dituzte

diz, eraikina agurtzeko eukaristia egingo dute 11:00etan. Donostiako Fernando Prado gotzainak gidatuko du saioa eta parte hartuko du Tolosako Andre Mariaren musika kaperak ere. Ekitaldiaren ondoren liburuak aurkeztuko dituzte, eta horiek eskuratzeko aukera ere izango da.

ERAIKINAREN ETORKIZUNA

Hiru mende pasatxoren ondoren hutsik geratuko da Santa

Klara komentua, eta bakarrik sortzen da galdera: zer gertatuko da eraikinarekin? Arduradunek azaldu dutenez, lehen asmoa da etorkizunean ere erlijiozko erabilera bat mantentzea, baina onartu dute ez dela «erraza» izango.

Era berean, kontatu dute prest egongo liratekeela espazioa kultur ekimenen eta jardueraren bat egiteko uzteko; baldintza nagusi batekin, ordea, aipatu proiektuak «bat egin» beharko luke klaratarrek mantendu duten «bizitza ereduarekin». Bi aukera horiez gain, momentuz, ez dute besterik aurreratu.

LAU MENDEKO IBILBIDEA

Santa Klararen ordena 1612an iritsi zen Tolosara, eta garai hartan Korreo kaleko Iturritza Jauregian jarri ziren bizitzen. Urte batzuk geroago, 1666an «haien beharretara egokitutako» komentua eraiki eta bertara mugitu ziren.

Klaratarrek hiru mende igaro dituzte bertan, gaur egun, lau kide geratzen dira eta, azarotik aurrera, Gasteizera lekualdatuko dituzte. Lau horietatik bi Tolosako Bedaio auzoko ahizpak dira, eta bat Santa Klara komentuko azken abadesa da: Genoveva Zabala. Esker oneko hitzak besterik ez ditu izan komentuarien itxiera iragartzeko garaian: «Gu bagoaz, baina Tolosak jakin behar du gauden tokian gaudela otoitz egiten jarraituko dugula lau mende baino gehiagotan gurekin egon eta lagundu digutenen alde».



Oraindik ez dute erabaki etorkizunean zer gertatuko den eraikinarekin. A. ARROYO ASKARAI



Ezkerrean, Genoveva Zabala abadesa; eskuinean, lauhun urte dituen komentuko gurutzia, berritua. A. ARROYO ASKARAI



GUTUNA

Lau emakume

Ehunka dira munduan zehar banatuta daudenak, eta beti daude tunika xume eta marroi batekin, eta gerriko zuri batekin. Denbora gehiena ematen dute euren egitekoetan, etxeko lanetan, erromesen eta behartsuen beharrei adi egoten, hala nola, liturgia eukaristikoa eta otoitzaldia prestatzen eta girotzen.

Adinean aurrera egin duten emakumeak dira, oso mundukoak, oso ebanjelikoak eta oso Tolosakoak. Galdetzen zaienean, zein da zure desira sakona?, apalki eta sinpleki erantzuten dute. Eta garrantzitsuena, barru-barrutik ateratzen zaie. Egia esan, denek azaltzen dute, bakoitzak bere era, zer den: maitasun istorio bat. Maitasun horri leial izan zaizkio urteetan, neguak eta udaberriak

joan dira. Ez dira mojatxoak, pieza bateko emakumeak baizik, ausartak eta ebanjelioari emanak.

350 urte baino gehiagotan, emakume talde batek ilusioz lan egin du Tolosan. Isiltasun hartan, Santa Klara komentuko jangelan ere eten egiten ziren otoitzak eta festa txikiak. Etxetzar irekia izan da eta harrera egiteko lekua, laguntzekoa eta entzutekoa, elkartzekoa eta otoitza egitekoa. Emakume horien kezak eta arazoak, moja klaratarrek, edozein familiakoen antzekoak dira. Gizaki bat baino gehiago dauden tokian, marruskadurak eta maitasuna daude. Isiltasuna, komentuko atea irekitzea, entzutea eta otoitza funtsezkoak izan dira Tolosan egin dituzten ia lau mendeetan. Ez dakit bizitza kontsokratua etorkizuneko izango den. Uste dut ez dela desagertuko, baizik eta eraldatu egingo dela eta bihar

bestelakoa izango dela. Tolosako Santa Klara komentua da gaur egun, nahiz eta fundazioa 1612koa izan eta eliza 1711 eta 1732 bitartean eraiki zen. Badirudi lau aldiz aldatu behar izan zutela gerraren eta zorigaitzoko nekeen ondorioz.

Larunbat honetan, azaroak 11, Fernando Prado Donostiako gotzaina buru dela, eskerrak emateko eta agurtzeko eukaristia ospatuko da bertan, 11:00etan. Lau emakume horiei beren espiritualtasuna, lana eta ausardia aitortzeko eta eskerrak emateko hitzordua izango da. Kontenplaziozko moja hauen bizitza baloratzen dut, baina gero eta gehiago inposatzen da ekintzan kontenplaziozkoak izatea, munduko klaustro handian umiltasunez, koherentziaz eta fedearekin bizitzea.

Joxe Agustin Arrieta, Tolosa

Informatika ikastaroa antolatu du Tolosaldea LHII-k

Saioak doakoak izango dira eta herritarrei informatikako oinarritzko kontzeptuak eta erabilerak irakastea dute helburu

Leyre Carrasco

Tolosaldea Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak informatika ikastaroak antolatu ditu, 55 urtetik gorako pertsonen eta kualifikazio maila baxua duten pertsonen bideratuta, eta ikastetxeak azpimarratu duenez, «garrantzia berezia eskainiko zaio genero arrakalari».

Ikastetxeak azaldu duenez, prestakuntza doakoa izango da, eta horren helburua da herritarrei informatikako oinarritzko

kontzeptuak eta erabilerak irakastea, egunerokoan izaten diren «oztopoei eta beharrei beldurrik gabe erantzuteko; izan ere, egunerokotasunean geroz eta kudeaketa gehiago egin behar dira digitalki».

Prestakuntza, hiru astetan zehar egitea aurreikusita dago, eta taldea osatu bezain pronto abiatuko dituzte saioak. Gehienez 20 pertsonako taldeak osatuko dituzte eta aste bakoitzean, astelehenetik ostegunera arratsaldeetan ariko dira lanean.

LANDUKO DIREN GAIAK

Bertan, hainbat gai esanguratsu landuko dituzte; besteak beste, BakQ nola lortu eta zertarako erabili daitekeen, udalarekin eta gizarte segurantzarekin harremanak nola kudeatu edota Osakidetzaako plataforma digitalki erabiltzen ikasi. Horretaz gain, beste hainbat baliabide digital ikasteko aukera ere izango dute parte hartzaileek, esaterako, emailaren kudeaketa, Google Drive zerbitzuaren funtzionamendua, Google Maps zerbi-

tzaren erabilera eta *online* segurtasuna.

Ikasgaiaren arabera, saio guztiak guztiz praktikoak izango dira, eta parte hartzaile bakoitzak norbere sakelako eta ordenagailua eraman ahalko du saioetara. Dena den, norbere materiala eraman ezin duenak ikastetxean bertan izango du praktikak egiteko eskuragarri.

Interesa dutenek hainbat modutara eman dezakete izena: formularioa beteta; Peru Larrondo proiektuko arduradunaren mu-

gikor zenbakira deituta (633 16 28 76); peru.arrondo@tolosaldealh.eus helbide elektronikora idatzita eta Tolosaldea Lanbide Heziketa Ikastetxe Integratuan aurrez aurre izena emanda. Izena emateko garaian garrantzitsua izango da izen-abizenak eta identifikaziorako dokumentu zenbakia azaltzea. Edozein zailantza izanez gero, harremanetan jarri daitezke izen-emateko telefono zenbaki berera deituta edo helbide elektronikora idatzita.

Noiz hasiko da?

Taldea osatu bezain pronto hasiko denez, ahalik eta azkarren izena ematea gomendatzen da eta jarraian izena eman duten guztiekin harremanetan jarriko gara. Ondoren, asmoa hiru astetan zehar jarraian egitea da. Hala ere, datak finkatzeko garaian, parte hartzaileen egoeretara egokitzen saiatuko gara. Amaiera datari dagokionez, prestakuntza digital hau 2023 urtean amaituko da.

Herritarrek prestakuntzara animatzeko mezurik?

Egitasmo aparta da egungo biztanleriarentzat euren behar eta nahiei erantzuteko, era malgu eta pertsonalizatu batean. Prestakuntza doakoa da eta ezagutza maila gutxiengorik eskatzen ez denez, aukera paregabea da erroka teknologikoari aurre egiteko. Horretaz gain, taldeko giro egokian eta elkarlanean jardungo dugu, denok batera mundu digitalerako prestatuz.



Tolosako kaleetan jarri dituzten kartel informatiboak. LEYRE CARRASCO

«Elkarlanean jardungo dugu, denok batera mundu digitalerako prestatuz»

PERU ARRONDO EGITASMOKO ARDURADUNA

Erronka teknologikoari aurre egiteko prest daudela dio Peru Arrondo arduradunak; horretarako, doako prestakuntza digitala antolatu dute, Tolosaldea LHII-n.

Leyre Carrasco

Gaur egun, geroz eta kudeaketa digital gehiago egin behar direla dio Peru Arrondo (Ordizia, 1997) proiektuko arduradunak. Horretatik, bere ustetan, egitasmo «aparta» da, «gizartearen behar eta nahiei erantzuteko».

Zein helbururekin abiatu duzue ekimena?

Tolosaldea LHIIIn egungo gizarterako baliagarria den prestakuntza digitala eskainiko da. Esan gabe doa sekulako garrantzia duela gai honek; izan ere, egunerokotasunean geroz eta kudeaketa gehiago egin behar

dira digitalki. Erronka horri aurre egiteko pentsatuta dago prestakuntza.

Zeintzuk izango dira bertan landuko dituzuen gaiak?

Hainbat gai esanguratsu landuko dira: BakQ nola lortu eta zertarako erabili daitekeen, udalarekin eta gizarte segurantzarekin harremanak nola kudeatu edota Osakidetzaako plataforma digitalki erabiltzen ikasi. Horretaz gain, beste hainbat baliabide digital ikasteko aukera ere izango da: Gmail, Drive, Maps eta *online* segurtasuna, besteak beste. **Nola banatu dituzue saioak?** Prestakuntza, hiru astetan zehar egitea aurreikusita dago. Aste bakoitzean, astelehenetik oste-

gunera, arratsaldean talde ezberdinak elkartu eta lanean ariko dira. Bertan saio bakoitzean arestian aipatutako gai ezberdinak lantzea aurreikusten da. Hala ere, gure saioak irekiak izango dira eta parte hartzaileek digitalki dituzten zailantza oro galdetzeko aukera izango dute saioetan zehar.

Zenbat pertsonak osatuko dute taldea?

Gehienez 20 pertsonako taldeak izango dira, baina hau arazo bat izaterik ez dugu nahi. Hiru astetan zehar egingo denez prestakuntza, aste beteko parte hartzaile kopurua betez gero, hurrengo asteko saioetan parte hartzeko aukera izango dute.

San Bernardo eskaut taldea desegiteko bi bilera egingo dituzte

AISIA // San Bernardo Eskaut-Gia Elkartea desegitea erabaki dute eta hori dela eta bertan aritu direnei gaur eta larunbatean egingo dituzten bileretara joateko deia luzatu diete, horrela «erabakia denen artean partekatze».

Kultur etxean bilduko dira gaur 19:30etik 20:30era, eta larunbatean 10:00etatik 13:00etara.

Baso atlantikoak, ornitologia eta anfibioak hizpide

Udalak biodibertsitatearen inguruko hainbat jarduera antolatu ditu tolosarren partaidetza eta interesa sustatzeko

Erredakzioa

Tolosako Udalak hainbat jardue-
ra antolatu ditu Biodibertsitate
Gunean, biodibertsitate-gaiei
buruzko ezagutza zabaldu eta
herritarren interesa sustatzeko.
Horiek horrela, hilabete honeta-
rako hainbat jarduera antolatu
ditu udalak.

IRTEERA IGANDEAN

Igandean, hilaren 12an, baso atlantikoaren ekologia ezagutze-
ko aukera izango da. Irteera ho-
netan, Belabieta inguruan bisita
egingo da bertako ekosistema
arautzen duten gakoak behatze-
ko eta ulertzeko. Irteeran parte
hartu nahi dutenak 09:00etan
elkartuko dira Dama Berdean.

Azaroaren 15ean, Ornitologia-
ren hastapenak ikastaroa izango
da. Paseriforme talde ezagune-
netako bati eskainitako saio be-
rri bat eskainiko da: turdidoak.
Gutxi gorabehera ordubetez, he-
gazti-talde horren identifikazio-
ari ekingo zaio eta biologiari bu-
ruzko gaiak landuko dira. Ikasta-
roa 18:00etan hasiko da, Antxon
Bandres Bidaiarien Txokoan.

Eta hilabete honetako Biodi-
bertsitate Guneako jarduerak bo-
robiltzeko, datorren azaroaren
29an *Gipuzkoako anfibioak (I)*
saioa izango da. Bertan, desager-
tzeko arrisku larrian dagoen
ornodunen talde horren biolo-
giaren eta identifikazioren ingu-
ruan ariko dira parte hartzaile-
kin.

Alokairurako diru laguntza eskatzeko epea, zabalik

GIZARTEA // Tolosako Udalak 85.000 euro bideratuko ditu ohi-
ko bizilekurako etxebizitzaren alo-
kairuaren zati bat diruz lagun-
tzeko. Eskuerak hilaren 27ra bi-
tarte egin daitezke, udal
bulegoetan. UDATen (Herrita-
rren Arreta Zerbitzuan) edo tele-
matikoki erregistro elektronikoa-
ren ere egin ahalko da eskaera.

Boka Seka kolektiboa eta hainbat gonbidatu, 3 tabernan

KULTURA // Boka Seka kolektibo-
ko kideek eta hainbat gonbidatuk
kontzertua eskainiko dute igan-
dean, 3 tabernan. RAP, hip hop
eta beste erritmo batzuk lantzen
dituzten BLZ, Malec, Apanrapa,
Keif eta Watsuren musika entzun
ahal izango da 18:00etan hasita.
Eurria eginez gero kontzertua ba-
rruan izango da.

Haur, nerabe eta gazteen aisialdiaren inguruko hausnarketa

AISIA // Ikasturte honetan ere
Tolosako Udalak haurren ekar-
penak jasoko ditu Haurren Hiria
proiektuaren bitartez. Herriki-
de, Laskorain eta Samaniego
ikastetxeetako 8 eta 12 urte arte-
ko haurrek hartuko dute parte,
eta haur, nerabe eta gazteen ai-
sialdiaren inguruan hausnartu-
ko dute.

Inauterietako kartel lehiaketan parte hartzeko aukera, zabalik

Azaroaren 24a izango da
lanak aurkezteko azken
eguna; kartel irabazlearen
egileak 1.500 euroko
saria jasoko du

Erredakzioa

Zabaldu dute jada Tolosako
Inauterietako kartel lehiaketara-
ko lanak aurkezteko epea. Ira-
bazleak 1.500 euro jasoko ditu
eta obrak fitxategi digital batean
entregatu behar dira, Tolosako
Udalak bere webgunean horreta-
rako prestatutako aplikazioaren
bitartez azaroak 24a baino lehen.
Kartelean ondoko testua txerta-
tu behar da: *Inauteriak 2024,*
otsailak 8-14 / Tolosa. Era bere-
an, Tolosako ikur komunikati-
boa integratuta eraman behar
du aurkeztutako lanak.

Nahi duen orok izango du
lehiaketan parte hartzeko auke-
ra eta obrak, ideia nahiz edukia-
ri dagokionez, originalak izan be-
harko dute derrigor, eta jenda-
rrean aurkezteko modukoak.
Plagio edo kopia susmorik sortu-
ko balitz, epaile taldeak erabaki-
ko luke proposamena onartu ala
baztertu, eta erabakia apelaezina
izango da. Partaide bakoitzak
gehienez hiru lan aurkeztu di-
tzake.

IRABAZLEA, ABENDUAN

Lanak azaroaren 24a bitarte aur-
keztu ahal izango dira, azaroa-
ren 26tik 30era kartel irabazlea-
ren aukeraketa egingo dute eta
abenduen 10etik 14ra esango
dute zein den irabazlea.

Informazio gehiago nahi due-
nak 943 670388 telefono zenba-
kira deitu dezake edo *festak@to-
losa.eus* helbidera idatzi dezake.

Proiektu gogokoena aukeratu beharko dute tolosarrek

16 urtetik gorako Tolosan erroldatutako herritarrek 17 proiektuz osatutako zerrendaren aurrean bozka bakarrarekin hiru egitasmo lehenesteko aukera izango dute

Erredakzioa

Tolosako Udalak zabaldu du au-
rrekontu parte hartzaileen boz-
keta fasea eta 16 urtetik gorako
Tolosan erroldatutako herrita-
rrek 17 proiektuz osatutako ze-
rrendaren aurrean hiru egitas-
mo lehenesteko aukera izango
dute azaroaren 12ra bitarte. Ba-
koitzak behin bakarrik izango du
bozkatzeko aukera. Bozka eskuz
eman daiteke postontzietan,
Udate Herritarren Arreta Zerbi-
tzuan eta kultur etxean, baita te-
lematikoki ere.

Udal teknikariek ekonomikoki
eta teknikoki bideragarriak di-
ren 17 proiektu zerrendatu dituz-
te, guztira 1.290.000 euroko
kostuarekin, baina gehienez
500.000 euroko mugarekin bi-
deratu ahalko dira 2024 urteko-
ak, eta horregatik, udalak pre-
miazkoenen alde boza ematera
animatu nahi ditu herritarrak.
Beraz, herritarren bozkek ezarri-
tako lehentasunaren arabera eta
ezarritako diru mugaren baitan
bideratuko dira 2024 urterako
herritarrek lehenetsitako egitas-
moak.

Eskaera-proposamen asko ez
dira bozketa fasera igaro, jada
2024 urteko aurrekontu aurrei-
kuspenaren barruan jaso direla-
ko edota udal mantenu planaren
baitan jaso eta beraren bitartez
bideratuko direlako. Esate bate-
rako, tren estazioko plaza berri-
tzeak proiektu bat idaztea eska-
tzen du eta hurrengo urterako

aurreikusita dago beraren kon-
tratazioa.

Behin bozketa fasea amaitze-
an, emaitzekin batera, prozesua

eta proiektu desberdinen bidera-
garritasunaren azterketaren in-
guruko azalpenak emango ditu
udalak.

PROIEKTUAK

**Kalistenia ariketa-sistema eta ka-
leko kirol parkeak:** 40.000 euro

Alondegi plazan haur parkea:
115.000 euro

**Tolosako haur eta nerabeei zuzen-
dutako udaleku irekiak:**
150.000 euro

**Tolosaldeko emakumeen historia
ikertzea:** 20.000 euro.

**Zabalarreta parkean kiosko-aterpe
bat, agertoki-aterpe itxi batekin:**
50.000 euro

Bedaio auzoko frontoi egokitua:
20.000 euro

**Komun publikoa Larramendi auzo-
an:** 80.000 euro.

Hilerrian komuna: 110.000 euro.
Larramendi auzoan jolaserako eta

ariketa fisikorako gunea: 110.000
euro.

**Emeterio Arreseko eraikina berri-
tzea:** 200.000 euro.

Haurrentzako ur parkeak:
50.000 euro.

Terraza publikoa Zerkausan:
150.000 euro.

**Bizikleta aparkaleku egokiak jar-
tzea:** 20.000 euro.

**Iurreamendi eta Amarotz
auzoak bidegorri bidez lotzea:**

60.000 euro.

**Baso eskola programaren zabalpe-
na:** 20.000 euro.

Energia bulegoa sortu: 65.000 euro.

Merkataritza sustatzeko plana:
30.000 euro.

zozketak

Atarikideentzat musika bilduma dugu

HABI taldearen diskografia

Atarikideentzat sarrera bikoitza dugu

BIDASOA 2018-2023 dokumentala

Azaroak 14, igandea
19:30ean
Villabonako Gurean

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte 943 65 56 95 edo Ataria.eus



OSTEGUNA, 2023KO AZAROAK 9
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Etxebarri, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 09

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. A30eko greba feminista lantzeko bilera irekia, uda-letxean, 18:00etan.
Amezket. Jauregirako Hirigintza hitzarmen berria sinatu du udalak jabeekin. Adostu dena azaltzeko bilera irekia, kultur etxean, 19:00etan.
Berastegi. Irakurle klubean Maixa Zugastiren *Atarian* eleberrria landuko dute, liburutegian, 18:00etan.
Irura. Irakurle taldean *Zomorrotuli* burua aztertuko dute, liburutegian, 18:00etan.

Jaiak

Amasa-Villabona. Amasako jaiak: 06:00. Gazteen gosaria. 14:30. Gazteen bazkaria. 17:00. Soka dantza eta aurrekua plazan. 21:00. Gazteen afaria Iturri-goxo jatetxean.

Zinema

Tolosa. *Los Colonos* Leidor aretoan, 20:30ean.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzearekin eguraldi iragarpena.
10:00. Kirol tertulia. Kirolak.
12:30. Pasahitza. Albisteak.
20:00. Mendikatea. Unai Ugarte-mendiarekin.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. L. Lejeune Ma-set. Euskal Herria, 24. 943 67 32 74.
TOLOSA. Gauekoa. L. A. Morant. Zabalarratalorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Goizeko lehen orduetan euri zaparrada ederrak izango dira.

Eguerdian eta arratsaldeko lehen orduan lasaialdi bat izango da, baina arratsalde erditik aurrera zaparrada batzuk izango dira. Haizeak mendebal/ ipar-mendebaldetik joko du eta tenperatura jaitsi egingo da, 12-15 graduan joz goia.



Bihar. Antzeko giroa. Goizean euri zaparrada batzuk botako ditu, eta

eguerditik aurrera urritu egingo dira eta askoz tartekatuago botako du. Mendebal/ ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, eta, gauean hego-mendebaldera egingo du. Tenperatura jaitsi eta ez da 11-14 gradutik pasako.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-ten eta iritzien erantzukizunik.

Inaxio Begiristain kultur beka sortu dute

«Inaxio Begiristainen balioak» transmitituko dituen lanak 2024ko martxoaren 10a baino lehen aurkeztu beharko dira



Inaxio Begiristainen jaiotzaren 100. urteurrenaren harira eginiko 'Bata zu eta bestea ni' antzezlaneko irudia. E. MAIZ

Erredakzioa Alegia

Alegiako Intxurre elkarteak Inaxio Begiristain kultur beka sortu du, sormen lanak sustatzeko eta laguntzeko helburuarekin. Dagoeneko zabalik dago proiektuak aurkezteko epea, eta 2024ko martxoaren 10a izango da horretarako azken eguna.

Antolatzaileek azaldu duteenez, «Inaxio Begiristainen balioak transmitituko dituen lanak

aurkeztu daitezke deialdira, hots, euskara, antzerkia, txistularitza edo kulturaren inguruan oinarrituriko lanak». Proiektuak jatorrizkoak eta euskaraz sortuak izan beharko dute, beste inondik moldatu gabeak eta aurretik saririk jaso edo argitaratu ez direnak. Beka 1.200 eurokoa izango da eta Intxurre elkarteak kopuruaren erdia irabazleari emango dio izendatu ondoren; eta beste erdia, berriz, lana amai-

tu, entregatu eta epaimahaiak onartutakoan emango dio.

Epaimahaiko kideek hainbat irizpideren arabera baloratuko dituzte proiektuak, besteak beste, lanaren kalitatea, originaltasuna eta erakargarritasuna; gaia- ren interesa, hots, Alegia mailako interes soziala; egingarritasuna, hau da, erabiltzeko modukoa izatea eta txertatuta izatea genero ikuspegia, berdintasuna eta giza baloreak.



ANOETA – LEKU EDER
3 EDO 4 LOGELA - GARAJE ITXIAK
TERRAZA PAREGABEAK HEGOALDERA

CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L.

Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484